

ATAUN ▶ KULTURA

# Ataungo irudien bila

Ataungo Udalak argazki eta pintura lehiaketak antolatu ditu ekainaren 4rako

## ARKAITZ APALATEGI

Ekainaren 4an ospatuko dira Ataungo III. Argazki Rallya eta II. Kaleko Pintura Lehiaketa. Azken urteetan bi lehiaketa horiek izan duten harrera ona ikusita, aurten ere antolatzea

erabaki du Udalak. Bi lehiaketen kasuan, Ataunen eta ekainaren 4an ateratako argazkiak edo egindako margolanak izan beharko dute.

Bi modalitateetan sari interesgarriak jarriko dituzte. Argazki lehiaketaren irabazleak

300 euroko saria jasoko du; margolanetan, berriz, 500 eurokoa. Izena emateko goizeko bederatzietatik aurrera agertu behar da egunean bertan udaltxe aurrera. Argazkilariek 10na euro ordaindu behar dute; horren truke karrete

bana emango zaie. Diapositibak errebelatzeko gastuak antolatzaileek ordainduko dituzte. Margolariek eurek ekarri beharko dituzte tresnak.

Bi lehiaketetako sarien banaketa uztailaren 1ean izango da, Ataungo Herri Antzokian.



lazko sari-banaketa. A. APALATEGI

## ORDIZIA ▶

### Oiangu Publikoa eta Bizirik taldeak batzarra deitu du

Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak herri batzarra antolatu du biharko. Bertan «Oiangu pribatizatzeo proiektuaren inguruko azken berriak» eman eta orain arte antolatutako ekintzen argazkiak ikusteko aukera izango da. Bilerara herrietarrek zein goierritarrek gonbidatu dituzte, «guztien irizti eta iruzkinak entzutea ezinbestekoa delako». Batzarra bihar 19:00etan hasiko da, Barrera kultur etxean.

## ATAUN ▶

### Saharar herriari buruz ariko dira bihar udaletxean

Ataungo Udalak Saharako Aingebeida herriarekin hitzartutako senidetza dela eta, hango egoeraren inguruan hitz egiteko bilera egingo da bihar, iluntzeko 20:00etan, udaletxean. Aurrena Saharara egindako bidaiaren berri eman eta Gurutzte Irizarrek bere esperientzia kontatuko du. Ondoren, bi herrien arteko harremanak sendotzeko batzorde bat osatzea aztertuko dute. Azkenik, Saharako umeak Ataungo familietan egoteko aukera landuko da.

## LAZKAO ▶

### Sarriegi anaien hitzaldia gaur izango da

Lazkaoko Maizpide euskaltegiak antolatuta, Josu eta Igor Sarriegi anaiak lazkaotarren hitzaldia izango da gaur. Bata Alaveseko jokalaria da; bestea, berriz, kirol kazetaria. Hitzaldia 21:00etan hasiko da.

